

“SASI-SHAOLINA” ETA HUTSAREN DISKURTSOA

Bilboko emakumeen hilketetan, hiltzailearen egiteko moduek eta biktimen izaerak aztoratu gaituzte lehenik eta gehien –etorkinak, gizarte maila ahuleneakoak, torturatu eta txikituak–, baina ez da hori hemen tratatu nahi dudan alderdia: hori gizonezkoaren muturreko indarkeriaren adierazpen makurrena da; alegia, berak bizi duen sexuen arteko gerran, funtsean, bere inpotenziaren adierazlerik behinena.

“Monje budistaz mozorrotutako hiltzaileaz” arituko naiz hemen, haren mozorroari eta diskurtsoari erreparatuz, bat-bateko eroaldiaren hipotesia alboratuz, hots “zerbait hautsi zen bere baitan, aurreko harmonia budatarra puskatu eta giza alderik ilunena agertu zitzaion”. Psikosia berezko koherentziaren jabe denez, jarrai diezaiozun beste ildo logiko bati.

Juan Aguilar izar mediatikoa izan da, eta hala jarraitzen du izaten. Eta gaurkotasunari dagokionez, hedabideetan utzi dizkigu urteetako arrastoak. Azkena, medio guztietan ageri den 2013ko bideoa. Bertan, eldarniozko eszenatokian eta bere piura dotoreenekin, eskuan ehiza ganibeta duela aurkezten zaigu, labana astiro mugituz, laztanduz, bere aho zorrotzez besoko biloak moztuz, bere zirku itzulipurdika hasi aitzin. Erakustaldi hori bere kide askok izenpetuko luketen diskurtso batez dago idatziz hornitua: “Estilo eta forma aunitz bizi eta gauzatzen dira nigan. Urteak dira ez ditudala errepikatzen mendeetako tradizioz, ahanzturaz, modez edo txapelketetako araudiez higatutakoak. Azken urteotan, *Dharma* eta *Zen*-aren bihotza bilakatu nahian nabil, hots, gogo eta gorputza modu leunean menderatzeko neure bide propioa sortzen, egin ditudan ikasketa guztiak horretara bideratuz. Nire helburua ez da arerioa baino beldurgarriagoa izatea, sentiberagoa baizik. Benetako *Zen*-a jorratzen ez duenak ez du benetako perfekzioa erdietsiko”.

Ba al du inongo zentzurik ekintzara pasatzeko prest dagoen baten halako eldarnioan inongo arretarik ipintzea... ez bada erreparatzeko antzeko hitz eta eszenografiak darabiltzaten zentzuzko pertsoneri?

Gai gara burutik dauden zenbait zororen solasaldi fanatikoak antzemateko, integrismo erlijiosoren baten izenean. Gai gara, halaber, onargarria eta arbuigarria zer den bereizteko. Eta arbuigarriari dagokienez, jasan ditzakegu hitzetatik ekintzetara pasatzen ez diren heinean. Beti gelditzen zaigu, halere, kezka puntu bat, muturreko posizioen hitzetan beti baitago denen izenean mintzatzeko joera hori: “*gu* (argiak, ausartak) *zuen* (ezjakinak, koldarrak) izenean mintzatu eta ekin behar”. Horiengandik norberak jartzen duen distantzia argia izanda ere, ez genuke etsi behar ekintza eta gogoetabide horietan gurea ere den zerbait antzeman arte. Bariccoren *Emmaus* eleberria saiatzen da azaleratzen 70eko hamarkadako heziketa katolikoaren baitan zetzan eromena: “normaltasunaren serieko hornikuntzarekin batera dator, ezin ukatu, gure katolikotasuna –katolikoak eta sinestunak gara, halabeharrez–. Berez, horretan datza anomalia, geure xalotasunaren teorema errefusatzen duen erokeria. Baina guretzat oso normala da dena, arauzkoa. Batek sinesten

du, eta ez dago beste aukerarik, antza [...] Hona erokeria mota baten hazia”. Eromen hazi horiek antzematen saiatuagoak gara egun, agian, “erlijioen itzuleraren aroan”, atera berriak baikara muturreko soluzioak hainbeste estimatzen zuen tradizio batetik. Sloterdijk-en hitzetan, “[Pablo,] unibertsaltasunaren apostoluaren idazkietan, bultzatzen da dagoeneko maitasun mota bat zeinak, erantzun egokirik ez jasotzekotan, zekenkeria maniako-suntsitzailea bihurtzeko joera baitu. Monoteismo unibertsalista oldarkorren fisionomiak berezkoa du predikariek jendearengan Jainkoaren izeneko izuikara sortarazteko grina”. Baina, zer gertatzen da Ekialdetik datozkigun hutsaren diskurtsoarekin? Ez al gara Mendebaldeko asko *Funtsezko Hutsaltasun* eta *Ezerez Metafisiko* baten lilurapean erori zerbait izatearen larritasuna arintzeko ahaleaginean?

Sedukzio joko zabala hedatu da azken hamarkadetan Mendebaldeko zibilizazio gatazkatsuen eta Ekialde Urrunean proiektatzen den ustezko jakinduriaren artean. Han ikusi nahi izan dute askok hemengo gabezia eta akats guztien ifrentzua. Hemen materia gailentzen da, han izpiritua; hemen estresa, han lasaitasuna; hemen azakeria, han sakontasuna... Bada dibulgazio zientifiko mota bat, fisika aurreratuenaren hipotesi bakoitzean “Ekialdeko jakinduriaren” intuizioren baten baieztapena baino ikusten ez duena. Fritjof Capraren *The Tao of Physics* arrakastatsua zabaldu zuen bide hedatu hori, eta horren adierazle da Punset-en *Redes* telebista aski ezaguna. Harrigarria al da, bada, programa horretan Aguilar maisua “Arte Martzialetan eta beren bizi-filosofian” aditu gisa gonbidatu izana?

Brian Victoriak, Zeelanda Berriko monje budistak, 1997an *Zen at war* ikerketa argitaratu zuen, Bigarren Mundu Gerraren aurreko hamarkadetan Japoniako militarismo inperialak eta bertako budismoak izan zuten harremanei buruzkoa. Liburuan azaltzen dira orduko maisu garrantzitsu zenbaitek egindako adierazpenak –gerraren ondoren Ipar Ameriketara joan, eta hango maisu budisten lehen belaunaldia heziko zutenen adierazpenak—. Hona adibide batzuk: “Aurrera egiteko agindua hartzen baduzue, aurrera zuek!; tiro egitekoa bada, pum!, pum!, egin tiro! Horixe baita *argizatzearen ezangarriaren gailentasuna*”. “Zen dotrina oso zehatza da buru-gogoeten jariora ez gelditzeko aginduan [...] Norbaitek bere izena entzuten badu, ‘bai’ esan eta aurrera, *zein arrazoirengatik deitua izan den erreparatzen ibili barik* [...] Heriotzak deitu duenak ez luke urduritasun ñimiñoenik sentitu beharko”. “Erljioaren [Budismoa] zeregin nagusia Estatuaren bizi iraupenaren alde lanean laguntzea da [...] Heriotza eragiten duena ez da soldadua, bere ezpata baizik. Beregan ez dago inori kalte egiteko inongo gogorik, baina etsaia agertzen da, eta biktima bilakatzen. *Balirudike ezpatak automatikoki betetzen duela justiziazko bere eginbarra, errukizko*” (etzanak neureak dira). Ez pentsa horiek salbuespeneko jarrerak direnik, edo Japoniari soilik dagozkionak. Budismoa ez da inondik ere botereek edozein korrante metafisiko edo erlijiosoren erabilpenetatik liburu izan. Rodríguez de Peñarandak dioenez “budismo tibetarra eta, berarekin,

mahayana korronteko gehienak [Japoniako *zen* barne] Indiako monismo klasiko baten metafisika absolutista batera itzuli ziren”.

Historiak ezagutzera eman duenez, Hutsaren diskurtsoa, ustez budismoak, taoismoak edo hinduismoak eskaintzen duten itxurakoa, ongi egokitu liteke jarrera inperialista oldarkorrenekin edo zenbait eldarnio eskizoiderekin.

“Arte martzialetan aditua” omen den horren aurrean, berriz, arlo horretan nolabaiteko zilegitasuna dutenen aldetik sortu den ahobatezko erantzun bakarra izan da Aguilarren iruzurra salatzea. Ez da oso zorrotza izan behar, baina, “arte martzialen” kirol edo errituen maneretan beste garai batzuetan gizonezko guztiek armadetan pasa beharreko bazterreko arrastoa sumatzeko: hierarkia zurruneke botere jokoak, armen lilura edo oldarkortasun bertuosista baten aldeko “baloreen” aldarrikapena. Hobe genuke diziplina hauen sustatzaileok praktika hauen alderdi perbertsoak oso kontuan hartu eta interesgarri nahiz beharrezko diren besteak landuko bagenu, gure arropostuetan ero baten “benetakotasunaren” edo “faltsukeriaren” kontuan gelditu ordez. Beste modu batera esanda, errekonozitu beharra dugu badela nolabaiteko benetakotasun patetikoa “Aguilar monjearen” parafernaliaren erakustaldian, bere mozerro, aldare, arma eta akrobaziak barne. Horretan guztian, bere hitzen eldarnioan bezala, imitatzaile soila baino ez da. Zerbait ikasiko genuke, agian, botere arrandia sintomatiko horiei erreparatuta, horren nabarmenak direnak kirolaren goraipamen sozialean, bestalde.

Juan Gorostidi Berrondo

BERRIA egunkariak argitaratu zuen artikulu honen mamia
2013ko ekainaren 12an